

# PSIKO GRAFOLOGIA

Irune Ibarra

*"Hitzak, hitz egin eta gero, ixiltasunean sartzen dira"*  
(Eliot)

*"Arte lan oro, espazio bat okupatzen duten formen  
egintzak dira edo bestela, okupatu gabeko espazioa"*  
(Oteiza)

Grafologiaren atal bat den espazioaren erabilpenaz arituko natzaizue oraingo honetan. Gai hau zuen kulturari kuriositate bat gehitzeko asmotan prestatu dut.

Gustokoa izango delakoan, aurrera, ez dira orri asko eta.

Ikasleek Indiako jakintsuari "brahman" (jakinduria) handiena zein zen zen galdetu ziotenean, jakintsuak ez zuen txintik esan. Galdetzen segitu eta maisuaren ixiltasunaz nekaturik, eurak ere mututzea erabaki zuten. Orduan, jakitunak ezagupenik handiena huraxe zela ihardetsi zien: isiltasuna.

Ekialdeko herrialdeetan, maiz landu izan da barne-begiratze, meditazio eta besteari isiltasunez entzuteko jarrera hori.

Mendebaldeko kulturaren garapenean, berriz, ekintzaren eta nork hitz gehiago-ozenago esateak duen nagusitasunaz ohartzen gara. Oteizaren ustetan, "cromlech"-en garai batean, guk euskaldunok joera "entzulea" izan genuen espazio hutsak betetzen ez zituena eta isiltasuna hausten ez zuen espresioa. Gaur egun, beraren ustez, euskaldunok erabat galdu dugu bakardade eta isiltasunean gustora egoteko jokabidea.

"Isiltasuna entzuten ez dakien pertsona, bakartasunean bizitzen ez dakiena, Izadiaren edo Artearen hizlaritasunari bakarrik begiratzen dion izakia... edo irriaren zarata hitz egiteko edota jateko beharrezkoa duena, ez da euskaldun, ez eta formazio izpiritual osoaren jabe den gizakia." (Oteiza)

Nietzsche-k ere gauza bera zioen: "gizon-emakumeen neurri izpirituala, bakarrik egoteko gaitasunak ematen zuela".

Hitzak eta isiluneak eguneroko giza harremanetara eramanez, hauxe dakusagu: hitzen bidez adierazten ditugun ideiak bezain garrantzitsuak direla isilunez adierazten ditugunak. Esaterako, elkarrizketa bateko "isilune hutsak" (ezer kontatze korik ez dugunean erabiltzen ditugunak), "isilune trinkoak" (erran behar dugun guztia ordenan jartzen saiatzen garenekoak) eta "isilune jasangaitzak" (gai delikaturen batek gure bihotz hunkikorra ukitzen duenekoak), beste batzuen artean.

Ba, barbaro/isilune, ekintza/atseden, dinamismo/hausnarketa... hauek irizpide edo ardatz bezala hartuz, orrialde idatziaren bikoiztasunaz jabetzen gara.

---


### Orrialdea bere osotasunean

---

Orri zuri baten aurrean, pertsonok gure nortasuna kokatzen dugu bitzta eta ingurugiroaren zati bat balitz bezala, gizon-emakumeok egokitu, proiektatu, inhibitu... egiten dugu gure burua orrialde batean.

Honela, orriak errealitatea (idatzi edo margotua) eta arriskuak, mamuak (ez idatzia) gordetzen ditu bere orobatasunean. Idatziak, "egindakoa", isladatzen du: ekintza, erreakzioa, aktibotasuna... erakusten digu.


Grafologoarentzat, idatzi gabeko espazio zuriak oso adierazgarriak izaten dira (musikan ere berdin gertatzen da). Espazio hauetan, pertsonok hausnartu, ideiak



Espazioa erabiltzeko desberdintasunak pertsonengan.

sailkatu, kritikatu, harremanetatik ihes egin eta abar luze bat burutzen dugu.


Espazio zuriak eta espazio grafikoak hortaz, elkar definitzen dute. Espazio zuriak, bertan inprimatzen den beltzaren arabera hartzen du forma eta esanahia.



"Itsasoaren horizontea" deritzon test proiektiboan bi lagunek irudikatutako marrazkiak

1. Etxekoandre honek espazio zuri guztia margotzen du.

Bere izaera, lagunkoia, mugikorra eta berritsua dela ateratzen da hemendik.



2. 26 urteko gazte baten "barne-mundua" dakusagu irudi huts honetan.  
Bakarzale, pentsakor... azaltzen zaigu.

Max Pulver-en ikerketen arabera, lau alde hartu behar ditugu kontutan orrialde bat begien aurrean dugunean (ikus zabalago UZTARO 4):

- **Ezkerreko eremua:** idazten duen pertsonaren iragan, herrimin, oroi-men, zalantzak... azaltzen ditu.
- **Eskuineko eremua:** objektibitate, aurrerapen eta gizarterantz begiratzearen tokia da.
- **Goiko aldea:** ikur erlijiosoan antzekotasunagatik, alde honetan, izpiritua, pentsamendua eta asmoak finkatzen dira, beste aspektu batzuen artean.
- **Beheko aldea:** testu bat idaztean, pentsamendua gauzatu egin da, sortutako Obra bihurtzen da. Mundu materiala, instintuena... ere bada toki hau.

Espazio hutsak orrialdean, bost mailatan aztertuko ditugu:


- a) Ezker-eskuineko tartearak
- b) Lerro batetik bestera dagoena
- d) Hitzetik hitzerakoa
- e) Hizkitik hizkirakoa
- f) Hizkien barnealdekoa

#### **a. Esker-eskuineko tartearak (edo kanpoaldeko espaziamendua)**

##### **a.1. Tarterik aurkitzen ez dugunean**


- a.1.1. Idazkera handi (3,5-4,5mm artean), aurrerakoi eta irekiaz: Hitzarekin konparaketa bat eginez, Olivaux-en konklusioa hartuko dugu: ozenki hitz egiten duen emakume edo gizonak, gelditu gabe hitz egiten duenaren antzera, norbere burua inposatzea bilatzen du.

Gizabanakoak, bere auto-proiekzioa lortzen du ezaugarri hauek dituen idazkerarekin. Kanpora begira, jende artean bere saltsan sentitzen da gizon edo emakumea.




a.1.2. Idazkera txiki (1,5-2,5 mm artean) eta estua denean:

Honela idazten duena barnerakoia da. Gainera, zikoiztasuna erakusten du, bai pertsonetikiko bai gauzekiko: objektuak, ingurugiroa, baliabideak... guztia aprobetxatzeko gai da.




a.2.2. Idazkera zabal eta handiaz: pertsona, inolako aurriritzirik gabe mugitzen da jende artean. Solasaldiak maite ditu, barne-arazoak alde batera uzten dituelarik.



a.2. Goiko eta ezkerreko tarte handiak (%15 baino gehiago)


a.2.1. Idazkera ordenatua eta handia: besteeikiko eta giza ohiturekiko ohore handiegia adierazten du.



a.3. Marjin handiak goian, behean, ezkerrean eta eskuinean.


Gizon edo emakume hau oso berezia agertuko da giza harremanetan, baita gauzen ordenazioan ere. Irla antzeko batean mugatuko du bere bizitza eta berarekin konektatu nahi

izanez gero, keinuren baten beharra izango duzu.



#### a.4. Marjin tipografikoak

Lehen begirada perfektu honetan, pertsonaren forma eta konbenientzien zentzua dakusagu. Kanpoalde materialerako itxura ere isladatzen da.



#### b. Lerro batetik besterako espazioa


Grafologo alemaniarrek izan ziren espaziamenduen esanahian gehien sakondu zutenak. Zehazki esateko, Lutz Wagner-i zor diogu hitz eta

lerroen arteko espazioa zertan datzan argitzearen meritua.

Izkiriatzen dugunean, lerro batetik bestera ematen dugun pausoa, geroxeago aztertuko dugun hitz batetik besterakoa baino kontzienteagoa izaten da. Bestalde, hasierako lerro eta hizkiak orokorrean, orrialdearen azkenekoak baino kontzienteagoak dira.

Pertsonak, ideiak eta gauzak argitasunez desberdintzeko gaitasuna azaltzen digu idazleak, lerroarteko espazioa zelakoa den ikusiz gero. Halaber, bere buruarekin bakarrik eta aske egon nahia.

**b.1. Espaziatua:** lerroen artean aireak oztoporik ez badu aurkitzen. Pertsonetikio erlazioan, argitasun intelektual eta ikuspegi orokorra nabaritutako zaio idazleari. Besteengandiko urruntasuna eta bakardadea ere adieraz dezake (bai lagunenganako adeitasuna edo bai lotsa...)



Pentsamendu garden eta perspektibaduna. Bere kasara ibiltzea gogoko du; Laura Mintegi.

**b.2. Espazio txikia:** lerrotik lerrora oso distantzia laburra, askotan "hanpak" eta "janbak" (hizkien goiko zatiak, adb. "b" eta behekoak, adb. "j", ukitzen dira.)

Just to thank you for your  
 advice for being an hour  
 map beforehand. We  
 were very interested  
 in your mission & professional u

Batez ere besteekin kontaktuan egotea eta lanean murgilduta egotea ikusten da idazkera honetan.

Ideien kontzentrazio bat dago. Denbora, arreta eta ekonomiaren ustiaketa, lan disziplinatuz lotzen dira. Pertsona murgildurik egoten da egoera honetan, ikuspegia galtzeko arriskuaz.

**d. Hitz batetik besterako espazioa**

Hitz edo berba biren marraketaren geldiduna, atsedena bat da: pentsamenduaren ekintza bi banantzen dituen pausagune bat.

Hitzen arteko espazio hutsak, nork bere buruarekin ihardundako denbora sinbolizatzen du. Egin denaren, egiten dihardugunaren eta egingo dugunaren hausnarketa da, orokorrean.

Grafoterapeutek gomendatzen duten neurri edo tarte egokiena idazlearen "m" bat edo bi "o"-rena da. Tarte hau errespetatuz, burmuineko bekokialdeko lobuluaren asoziazio-guneak, autokontrol bat ahalbidetzen du. Honetaz gain, utopismoak geldiarazi, instinti-bitatea menperatu eta depresioak sendatzen laguntzen duela diote.

**d.1. Espazio handiegia:** lau "o" baino gehiago uzten denean. Zein esanahi du?

- Pertsonaren isolamendu nabarmena
- Gehiegizko barne-ikusketa, meditazione iheskorra eta beharbada eskizotimia (bakartasuna bilatzeko zaletasuna), errealitate eta besteen gogorkeriez bere burua defendatzen du.
- Bakoitzaren barnean galdera gehiegi egin eta honek dakartzan zalantzak. Autokritika ere bai.
- Kritikatasun handia: errealitateko oztopoen, ondorioen eta egoeren larregizko arrazonamendura darabate pertsona.


ie            ja    me            mission  
 public            foundation            r  
 me            d'    me            social  
 displacement            industrial.

Norbere buruari kritika zorrotza eta isolamendu itzela nabari da testu hau idatzi duen pertsonarengan.

**d.2. Espazioa txikiegia** " m" bat baino txikiagoa dagoela dakusagunean. (Idazlearen erritmoa lasaia bada, ez da horrenbeste kontuan hartzen)

Gizon edo emakume honek, besteen hurbiltasuna oso gustokoa


izango du. Bestalde, egoeren eta hauen ondorioen ikuspegi panoramiko eza agertzen da. Zuhurtasun ezak, bulkadaren bulkarak, pertsona sarritan izaki sugestionakor batetan bilakatzen du.



Sigmund Freud, psikoanaliaren sortzailea, pentsatu gabe esperientzia berrietara abiatzen zen. Giza harremana oso garrantzitsua zen berarentzat.

**d.3.** Espazio irregularra: batzuetan espazioekin eta besteetan espaziorik gabe.

Emotibitatea nabari da honelako kasuetan, idatziaren egilea, anibalentzian erortzeko arriskuan gelditzen delarik. Besteekin egoteko gogoia, orain bai eta gero ez, apur bat irregularra izango da, ez dakizu inoiz zein asmo izango duen.



Iratxe Ibarra 18 urtetako bertsolariak, sasoiak dela edo, zalantzak ditu.


Hausnarketarako denboraren jabe delako batzuetan oso erraz ikusiko du zein erabaki hartu. Besteetan, itsumustuan abiatuko da, bihotzeko aginduei ezin jarraituz.

**e) Hizkitik hizkirakoa**

Hizki bakoitzak idazten duen pertsonaren lekua betetzen badu, hizkitik hizkirako espazioak, besteari lagatzen diogun tartetxoa izango da, besteak beste.

**e.1.** Zabala: Letratik letrara hutsuneak aurkitzen ditugunean. Pentsamendu zabaleko izaki baten aurrean gaude. Sakontasun afektibo eta aktiboaz, bestea maitasunez konprenitzeko gauza da. Gainera, gogoz eta arrakastatsu dihardu egia bilatuz, baita buruhauste konplexuetan ere.

Askatasun-sentimendu batez inguraturik, gauzen zentzu orokorra miakatzen dabil.



Gizon, idazle, olerkari... honek zintzoki entzuten zekien bestearen hitza. Apala eta pertsona osoa.

**e.2.** Estua: hizki biren arteko espazioan beste hizki batentzako tokirik ez dagoenean honela sailkatzen da idazkera.



Hemen ez dago "zu"-arentzat gunerik, idatziaren jabeak dena beretzat nahi du: ez da posible kasu hauetan emankortasunik, ez eta giza arazoetan inplikaziorik: pertsonaren mundu guztia beraren inguruan kokatzen da.

Hiperemotibitatearen seinale ere bada: errealitatea baino ilusioa gehiago maite dutenena ere.

Te veo como una  
ausencia a veces hablo

Gazte honen izaeran ez dugu aurkitzen bestearentzako leku askorik, ikus zelan dauden hizkiak itsatsita bezala.

\*Oharra: idazkera batean heterogeneitate ugari aurkienezake (gizakiok horrela gara eta). Izaeraren oposaketak isladatzen dituzte. Adibide batzuk:

- Espaziatua hitzen artean, nahastea lerroen artean: barneko bakardadea, estrabertsio eragileaz konpentsatzen duten pertsonengan aurkitzen dugu.

Narekin gaitzen eta  
Hoyer urtez eg  
eskaparate batean,  
desayunio berrin  
Seguritasuna eta  
Narekin gaitzen eta

Benito Lertxundi-ren abesti bat bere eskuz idatzita: heterogeneitateetako bat.

- Estua hitzen artean, espaziatua lerroetan: konfidantza dagoen giroetan, euren kontaktu-nahia erakusten duten pertsonetan ematen da. Arrotz eta jendaurrean, erreserba adierazten dute.

rapide. Le livre sera  
non lycées.  
Bien à vous  
Fustel de Coulanges

Fustel de Coulanges: pentsamendua, kanpora atara aurretik, konzentrazio sakonetan ibiliko da.

#### f) Hizkien barnealdeko espazioa

Frantzian, P. Faideau-k beste interpretazio bat eman die espazio hutsei: bera, hizki, hitz eta lerroen arteko espezioen garrantziaz gainera, hizkien barne-hutsuneen garrantziaz ohartu da. Bere ustez, gizakia "konposatu" hirukoitza da: gorputza, arima (bihotz eta pentsamendua) eta izpirituz osaturiko elementua (idazkeraren "osagaiak" ere "rasgo", "trazado" eta espazio hutsa izango lirateke.)

Gandhi

Gandhi: hirukoiztasunaren adibide garbia.

Ondoren azalduko dudan "idazkera aireatua", izpiritua "alientatzen" duen pertsona baten ezaugarria izango litzateke. Oreka oso baten islada da "idazkera aireatua". Ideia interesgarria da hau, pertsonaren dimentsio izpirituala ere kontuan hartzen baitu.

---

### **Idazkera aireatua**

---

Orrialdeko espazio hutsen eraketa armoniosuen garrantziagatik bereizten da. Hizki, hitz eta lerroen artean espazio zabal eta orekatuak daude bertan.

Orokorrean, oreka ona adierazten du: besteenganako errespetua, planu intelektualean izpirituaren argitasunaren seinale eta epai independentea (guzti hau testuko beste elementuak kontuan hartuz).

---

### **Che: pentsamendu eta ekintza**

---

Herri zapalduen askapen-sinbolo bilakatu den gizon argentinar hau, <sup>1</sup>bere asmo eta proiektuak metodo malguaz eratzeko gai zen, barne-armonia eta izaera arduratsuekin.

<sup>2</sup>Ikuspegi detallista eta joera obserbatzaileaz, <sup>3</sup>arrazoiari leku egiten zion. <sup>4</sup>Gainera, konzientzia kanpo handiaren jabe zenez, <sup>5</sup>gauza guztiak balorazio zuhur eta <sup>6</sup>zentzu osoan ulertzen saiatzen zen.

<sup>7</sup>Bere barnekaldearekin elkarrizketatzen ohituta zegoen, <sup>8</sup>lehenengo pentsatu eta gero jokatu egingo zuen.

<sup>9</sup>Gurari eta konzientziaren arteko arazoak, askotan, erabakiak hartzerakoan, oztopo bilakatuko zitzaizkion, honela efikazia pittin bat galduz.

<sup>10</sup>Batez ere proiektu bat eskuartean bazuen, emozionatu, artegatu eta gauzatu nahiak bultzaturik, denbora eta espazioa ahanztiko zituen. <sup>11</sup>Nahiz eta planifikazioren bat beti buruan izan, jakinnahiak bide berrietara zeraman, <sup>12</sup>hasierako helburuak askotan ahaztu edo gaindituz.

<sup>13</sup>Beraz, asmo bat aurrera eramatea pentsatuz gero, ausart eta dinamiko zebilen, <sup>14</sup>munduarenganako eta besteekiko interes handia azalduz. Hauen onari begira bere ahalegina eskeintzen ahalegindu zen (psikologikoki heldutasun ona nabari dugu jarrera honetan). <sup>15</sup>Inplikazioa daku-sagu inguruan gertatzen dena-rekin.

<sup>16</sup>Bere barnean zuen konfidantzaz baliatuz, <sup>17</sup>gaizki ikusten zuenaren aurkako borrokalari gartsua zen, proposaturiko guztia lortzea zuen helburu.

<sup>18</sup>Izaera pertsonala, <sup>19</sup>espontaneo eta faltsukerien aurkako honek <sup>20</sup>emankortasuna ahalbidetu zuen, xahutasunean erori gabe.

<sup>21</sup>Besteengandik hurbil sentitzen zen eta <sup>22</sup>adaptazio-arazorik ez da isladatzen bere idatzi honetan, baina <sup>23</sup>jende-talde txikietan lasaiago sentituko zen. <sup>24</sup>Apala oso, ez zuen protagonismorako asmorik.

Azken batean, barneko garapen pertsonala nabari dugu Cheren esku-

-izkribuan, beti mugimenduan dabilen "ni" sakon bat. Pentsamendua eta ekintza orekan zituen laguna dugu Che; mugarik ez edukitzea gustatuko litzaiokeen lagun xume, baikor eta hitzemailea.

Oharra: Papertxo hau idatzi zuenean, ahul eta gaixorik zegoen Che. Idazlumaren presioa fina da eta "o", "a"... hizkiak kongestionatuta ageri dira. Gainera, "Pepe" horretan sufrimendu seinalea den pintxo bat azaltzen da. "Quizá hitzeko "Q"-an ere bai.

---

### Non ikusten da?

---

1.- Orrialdeko espazioa harmoniotsuki eratua dago.

Puntu eta apartekoak zurruntasunik gabe baina euren tokian, ordena bat jarraitzen dute.

2.- Hizki oso txikiak eta batzuetan hitzaren azkenerantz txikituz doaz.

3.- Hizki oso txikiak eta xumeak (hizkiak ezerezean, bilutsik uzten du).

PASAJES DE LA GUERRA  
REVOLUCIONARIA

Pepe:

Es la hora de partir  
Quizá esto te explique mi  
atención al viaje de Roberto

Te dejo esto que espero  
no sea el recuerdo postumo,  
no es vanidad intelectualista de un  
gesto de amistad, nada más.

Hoste otra, no se  
produce un abrazo falso  
de

Habana / 65

- 4.- Hizkitik hizkira zabalatasuna nabari dugu eta lerrotik lerrora ere bai; ukitu batzuk kenduz, ez dago txarto. "s" hizkiaren oinarri zabalak, kontzientzi eremu zabala adierazten digu.
- 5.- Hitzetik hitzera dagoen espazioa, hizki xumeak eta eskuineranzko inklinazioa.
- 6.- Hizki txikiak baina espaziodunak dira.
- 7.- Hizkien arteko espazioagatik, orohar.
- 8.- Maiuskulak hurrengo hizkitik bananduak daude.
- 9.- Lerrotik lerrorako nolabaiteko ukituak.
- 10.- Orriaren eskuinaldean espazio gutxiago dago eta ezkerreko marjina zabalduz doa. Idazkera, arina eta txikia ere bada.
- 11.- Hasieran aipatutako ordena orokorra, irregulartasun batzuk egon arren.
- 12.- Ezkerreko marjina zabalduz doa.
- 13.- Hizkiak taldeka lotuak, 't'-ren makila aurreratu batzuk, idazkera aurrerakoia, zabala...
- 14.- Hizki xumeak, aurrerakoiak, arinak... dira. Sinadura gorantz eta ezkerreko marjina zabalduz.
- 15.- Idazkera zabala, aurrerakoia, espaziatua, kurboa, inklinazioa moderatua eta obalo (a,o) ireki batzuekin.
- 16.- Sinadura gorantz doa.
- 17.- Hitzak espontaneoak dira, xumeak, txikiak, argiak. Sinadura, testutik hurbil eta errubrikarik gabe ageri da.
- 18.- Idazkera pertsonala du, antimodelikoa.
- 19.- Hitzen artean irregulartasun batzuk nabari dira.
- 20.- Espazioak neurri egokian daude.
- 21.- Sinadura testutik hurbil eta hizki asko lotuta daude.
- 22.- Hizkien oinarriak kurboak dira eta ez da azaltzen burugogorkeria, handinahia... horrelako seinalerik.
- 23.- Hizki oso txikiak.
- 24.- Esan dugun guztiagatik

---

## **Bibliografía**

---

- BRU, R.G.; *Introducción a la grafología*. Martinez Roda, Bartzelona, 1990.
- GILLE-MAISANI, Jean-Charles: *Psicología de la escritura*. Herder Editoriala, Bartzelona, 1991.
- GULLAN-WRUR, Margaret: *Manuel práctico de grafología*. Edaf argitaletxea, Madril, 1988.
- Grafologiako boletina, 17.
- NANOT, A; *Enciclopedia de la grafología*. Bartzelona, 1962.
- OTEIZA; "*QUOSQUE TANDEM...!* ensayo de interpretación estética del clima vasco.
- ORTEGA Y GASSET; *El espectador*, Sanchez-Leal, Madril, 1966.
- RUSSELL, Bertrand; *El conocimiento humano*. Taurus editoriala, Madril, 1977.
- VELS, Augusto; *Diccionario de grafología*. Herder editoriala, Bartzelona, 1983.